

# ZAR

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

247n. zenbakia  
urterilla 2000



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



R. Nistal

**DURANGO'KO LIBURU TA ERES-MINTZ-AZOKAN  
(NAPARROA'RI ESKIÑA AURTEN)**

**ARGAZKIAN: LASUEN'DAR BALENDIN  
JIMENO JURIO'TAR JOSE M.<sup>a</sup>  
NAPARRARI ARGIZAIOLA EMOTEN**

# DABBADIE EUSKELZALE TA IDAZLEA

DABBADIE JAUNA GIZON JATORRA  
EUSKALERRIKO ZELAIAN  
BIZITZA ONTAN ZERBAIT EGIÑEZ  
JOKATU ZENDUN BIDIAN;  
AMETS EDER BAT ZEUNKAN GOGOAN  
EUSKALDUNAREN AURRIAN  
NORBERE LURRA AIPATUTEA  
GIZA JAKINTSU ARTIAN.

GAUZ DANEN GOITIK MAITE ZENDUAN  
IZKUNTZA BARDIN GABIA  
ARBASO ONEN JAKITURITIK  
DATORKIGUN ITZ LORIA;  
BENETAN EDER EDERRIK BA-DA  
EUSKALDUN ABOTS-IZTIA  
JAKITUN ASKO ARRITU DITUN  
EUSKERA ZORAGARRIA.

IZKUNTZ ON BATEK BEAR DAUAN LEZ  
BERE SAILLAK EDERTZEA  
ZURE GOGOAN, EGIZ, IZAN ZAN  
IDATZIZ ABERASTIA;  
MEREZI EBAN BIKAINASUNA  
GURA ZEUNTSAN EMOTIA  
GEROAGO TA EDERRAGOA  
IZAN ZEDIN EUSKERIA.

LOREA  
Ixil ixilik zagoz  
or goiko ariztian  
giza amesgarri;  
lur guztia begira  
irripar gozoetan  
edertasunari.

EURIA  
Legorak Ixil bear du  
lurraren arimea  
gaisorik miñenaz;  
itxas errukiorra  
zabaldu goi atear  
laiño baltzenagaz.

IZARRAK  
Millinoiak izarrak  
ñirñir gozoan dabiltz  
lurrera begira;  
lur illuna gora adi  
amets gozoenetan  
izar argitara.

BIZIA  
Zer daukazu bizia  
zure izate ortan  
ain maitagarria;  
iñork ez daki zer dan  
bizitz muin gozoa  
bardin bako leia.

EROAPENA  
Erasoaren aurka  
gogorkeria dabil  
gizarte lardean ;  
arro dabiltzaz goizez  
aurre aurre burruka  
koparen aurrian.

Usain gozozko lore  
urregorriz jantzirik  
zagoz zugatz puntan;  
zerua urrerago  
aurkituten al dozu  
abesti soiñuetan...

Trumoiak, dardaratu  
ortzaldeko laiñoak  
tximista indarrez;  
betor euri gozoa  
lurrak asetzeraiño  
eurien ederrez.

Anaitasun ederra  
sortu eben bart gauzez  
zeru eta lurrak;  
argiaren ariña  
ta lurraren astuna  
pozez alkartuak.

Amets egin dot amets  
zu zarala ederren  
ondasun danetan;  
goizian esnatu naz  
zure ezitia gozartuz  
argi ederretan.

Egurra iatorkie  
goizaldeko bostetan  
kale barrenian;  
ai ene, erruki eske  
estu dabiltzaz mutillak  
parkamen eskian.

SIÑISMENA  
Loreen lora azia  
landara buruan lez  
estalduta zagoz;  
gizona dozu buru  
erne-min toki legez  
zerutar pozkiroz.

EUSKALDUNA  
Zure gizatasuna  
berez da arrigarria  
mundu zabalean;  
arrituta daukazuz  
izadi egaletan  
gizonak lurrean.

MENDI  
Mendi mendi doaz  
euzko gazte sendoak  
bizia indartzera;  
gora eta gorago  
ta biotza alaiago  
gaiñera begira.

AURRA  
Eguzki dizdizetan  
baratzean lorea  
morgil ta urrea;  
mutil jaio-barria  
lo derrotan datza  
potxolo maitea.

UME  
Kumatxoari agur...  
Nozbait eltzen danean  
anaia barria;  
zuretatz izten ditut  
burusi, burukoa  
ta oial zuria.

Siñismen arrigarri  
lorearen antzera  
orbiztuten zara;  
ioreetan lore zara;  
gizonak jaso nairik  
iurretik zerura.

Burua ta biotza  
dana itzez ederturik  
daroa euzkoak;  
mendi ta zelai zear  
egiaz jokatu dau  
euzkoen gogoak.

Arrano karrazia  
dator goitik berantza  
illezkor goizian;  
ta ardiak be aldian  
bedarrari ekiñez  
gozaro janian.

Landara magalean  
larros azala lertzen...  
ain da maitagarria;  
umearen begiak  
argiagaz izletan  
biotz zoragarri.

.Oi ze atsegin diran  
eguzki ta aizea  
edozein zelaitan;  
nire poz aundiena  
lagunekin jolastu  
goiz argi ezitan.

Amaren asmoetan  
milla galdera dabiltz  
umeari buruz;  
aurrak ezin erantzun  
izketan ez daki-ta  
beraren aburuz.

Odol bero garbia  
larrosaren ezoa  
ezpan gorrietan;  
zer egon lei galdurik  
baratzeko bizitzan  
udalen goizian...?

## EUSKAL GIZONA

Orain larogei urte  
ezagutu nituan  
euskaldun semeak;  
buruz zentzundun ziran  
beti on egin nairik  
egi maitaleak;

Erriaren soiñua  
lan ta siñismen ziran  
etxe ta soloan;  
sendi maitagarria  
goi argiz indartuta  
alkarren ondoan.

PAULIN

# NAPARROA'KO ERRIBERA TA EUSKEREA

Entzute aundiko gizona da Euskalerrian billatzaille, euskalzale eta izlari trebea dogun Jimeno Jurio'tar Jose Maria.

Jaun ospetsu onek ondo irabazitako omenaldia izan dau Durango'ko Euskal Liburu ta eres-mintzen azokan: 72 urteko gizon onek oraintsu argitaratu dau idaz-lan bat idazpuruau au dala: «Euskerearen edestia Naparroa;n».

Beronek esaten dauan lez, «bere buruaren irakasle» dan jakitun onek liburu asko agertu dauz Naparroa'n eta au azkenengoa baiño ez dogu.

Durango'ko Azokak aintzat artu dau idazle txalagarri onek azkenengo iru amarkadetan egin dauan lana.

Ona emen Gorostiza'tar Joseba durangoarrak izlariagaz izan dauan alkar-izketa:

– **Zer deritxazu omenaldi oneri?**

– Omenaldia egiteko ustea ebela entzun nebanean, arrituta geratu nintzan, batez be Durango'ko azoka onek geroago ta entzute aundiagoa daukalako, bai gure errian eta bai Europa osoan. Lenengotan, omenaldia onartzeko lotsa apur bat zomatu neban, baiña gero, gauzea obeto aztertuta, arrituta egon arren, egin dot.

– **Eta zer deritxazu oraingo ekiñaldi au Naparroa'ri eskiña izateari?**

– Gauza zoragarria deritxat. Geroago ta geiago kontuan artu bear dala uste dot Naparroak gure Erriaren barruan dauan garrantzia.

– **Azoka onek beste au be gogoratzen dausku: Durango-aldea orain dirala 800 urte Naparroaren barruan egoala.**

Bai, ori bai. Durango-aldea ta lurralde osa, Gipuzkoa ta Araba be Naparroa'koak ziran eta. Ekiñaldi onek Naparroa'ri eskintzeak, edestiko jazokizun orreri sakontasun barria emon bear dautsola uste dot.

– **Gaur Naparroa eta Euskalerrria alkarrengana urerratzen doazela uste dozu?**

Egia esan, urrintze bat izan da, politikarien jokoa dala. Baiña astiro-astiro, gizarte-giroa aztertuz eta edestia argituz, urreratze au aundiago izango dala itxaroten dot.

– **Zu billatzaillea zara, zeure buruaren irakaslea eta sarritan eztabaidatua!**

Bai, ori egia da. Ni ez naz urten Ikastetxe Nagusiko girotik eta orrek askatasun bereizia emoten daust gauza batzuk estaeko. Ondo dakit nik esaten dodazan ainbat gauza eztabaidatuak dirala. Baiña erritarrak arduetan sartzea ez da gauza txarra.

– **Zer izaten dozu naiago zeure billaketarako: Politika-gaiak eta izkuntza-arlokoak aztertzea?**

Euskera-arlokoak dira ondorenik onena lortu dabenak eta orreixek emonten dauste pozik geien.

– **Zuk oraintsu argitaratu dozu Naparroa'ko euskerearen edestia deritxon liburua. Zelan dago gaur Naparroako Buru-Jabetza Alkargoan euskerea?**

Nire ustez, Naparroan euskereari buruz geroago ta ardura geiago dago eta gure izkuntzaren erabilketa be gora ta gora doa. Or dagoz ikastola'k be. Oneik dira esan dodan ardura ori agertzeko biderik egokiena. Baiña gauza barria eta guztiz jakingarria auxe da: Ardura ori ez dala Iruñako gauzea bakarrik, len Iruñan egozan ikastola guztiak, baiña ardura ori Erribera'ra be zabaldu da. Euskerea barriro eskuratzeko ardura bizi-bizi bat agiri da, euskerea ta euskal-jakintza eskuratzekoa, eta ori urtean joanean aurrera ta aurrera doa.

– **Baiña Erribera-aldean iñoz ez da euskeraz berba egin!**

– Egia da euskerea ez dala iñoz izan bertakoa eta iñoz izan ba'zan, edesti-aurrean izango zan. Inguru aretan ara ta ona ibilli ziran erromatarrak, godoak, bisigodoak eta musulmanak eta euskereak ez dau izan an aurretikoen erdurik eta gaiñera aspaldion geiengo dauken gizarte-arlo batzuk euskal-gai guztien aurka gorroto sakontzen alegindu dira.

**Joseba Gorostiza'k, El Correo'n**  
(Euskaratzailea: Olazar'tar Martin)

## ZER ALDIZKARIA

**Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:**

**EUSKERAZALEAK**

**BILBAO BIZKAIA KUTXA**

**Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!**

**Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 3.000 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.**

**Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.**

**Eskerrik asko!**



---

## ERDERA DALA-TA - II

---

O a izuga ia dan kaltea, euskal-gogoari buruz egiten dana, aspaldidanik egiten ari zaiguna. Ez da ori naikoa oindiño.

Guzi oi, ikasi dugun guzia, inda ez, erderaz ikasi dugulako, erdera ezufetaraño ta buru-muiñetaraño sartu zaigu, ta guziok, euskera ar'etaz ikasi dugunok ere, gure oldozpen guziak, berez, erderaz egiten ditugu, ala beafik.

Gure adimena erderaz elikaturik dagoelako, euskeraz yardutean ere, erdal-itzen bidez oldozteko bearturik gagoz.

Eta o ela, gure gogoia erdaldunagoa da euskalduna baño; o a gure gogoia ere guztiz menperatuik, eta erdera izan da lan ori gugan burutu duena.

Gudalari, ertzain eta txapel-oke en bitartez lortzeko eziña zana, erderaren bidez egin digute; ta aien indaiaz euskal-gorputza, lotu, estekatu ta jopu bihurturik baldin badago, areago, askoz geyago euskal-gogoia erderaren indafaz; eta egokera ontatik azkatzea lengo artatik baño mila bider zalagoa izango zaigu, enurarik gabe.

Naiz eta e iketari buruz azkatasun audiena izan, urteak eta urteak, gizaldiak ere, ta lan eta naimen biziena izango zaizkigu beafak gogoaren izarian yarei izateko.

Zer egin bea , bada, geron aldetik egizkoa dan gure egokera itun ontan? Euskera ikasi, noski, lendabizi, ta ondo ikasi ere. Euskera ikasten ez duen euskaldunak, naimenez ala naimen berezirik gabe, ontzat artzen du gure jopu-egokera au, ontzat artzen du abe iaren eriotza; aitzitik, euskera ikasten duen euskaldunak lanik egokie-na dagi bere burua azkatzeko ta Euzkadi'ren azkatasuna laguntzeko.

Ta guziok beti egi aundi onezaz gogoratu bea dugu: Euzkadi'rentzat erdera eriotza da, ta euskera bizia; erderaren bidez iltzera goaz, euskeraren bidez bizira; ta arazo ori ain argi dugularik, ez da esan bear ibiltzeko gure bidea zein dan.

Erderaren eskef eta gure arerioen niaz, gaur gure E i erdal-gogoia nagusitu zaigu, euskal-gogoia ufutiko mendietara baztertuta dagoelarik; eta ufutiko txokoetaraño ere eltzen ari zaigu, gure Euskal-E ia zearo Erdal-Efia bihurtzeko xedeaz. Ortze dago gure ebazkizun guziaren muña.

Gure artean asko ta gogor mintzatzen da gudalari, ertzain eta txapel-oke en aurka, ta guzia oso gutxi dala esan bea , guzti oiek gure kaltez egin dutena gogoratu ezker. Osterantzean guretaz askoz txaragoa dan erderaren aurka oso gutxi da entzuten dana; ulerkaitza benetan ori, erdera guretaz gogo-gudalari, gogo-ertzain eta gogo-txapel-oke a batera izanik.

Erdera ta erdal-gogoia alde ta txoko guzietan sartu ta sartzan ari zaizkigula esan dugu, bai ta euskeran bertan ere. Gaur erderakada bat ontzat artzen da gurean euskeraz egitean, gero beste bat eta biar geyago; ta erderakada oiek euskal-itzak baztertu ta oien tokian geratzen dira gure izkuntzan pipiaren lana burutzeko.

Lan kaltefari ori dagoeneko buruturik dala esan bea , toki batzuetan besteetan baño neufi aundiagoaz: emen, euskal-basefietan, eunetik ama edo; or, euskal-e i txikietan, eunetik ogei apika, ta aundiagoak diran beste e i batzuetan, be ogei ausaz; an, uri aundietan, Bizkaya'ko sartaldean, Laburdi'ko itxasaldean, la Araba ta Napa oa osoan, eunetik eun. O ek erakusten du, garbi, erderaren auferapena ta euskeraren atzerakada; of ikusten da, argi, gure E i 'aren eriotzarako bidea.

Gudalari, ertzain eta txapel-oke ak, egiten digutena-gatik, gure arerio amo atuak baldin badira, orixe bera da erdera guretaz, eta geyago ere, beste guzti aiek baño kalte aundiago ta sakonago gure gogo-bizian egiten digulako.

Onezkero izugafia dugu gure Efia egiña dagoen kaltea, ta izugafiak ere kalte ofezaz sendatzeko egin bea ditugun alegiñak. Alegin oien bidez, euskera gure bizi guzian barna, gero ta geyago, sartu bea dogu, bakoitzak bere aldetik ta guziok batera; euskeran bertan, alik eta geyenak, erderakadak baztertu bea ditugu ta oien orde zokoratu ala aitzuta geratu diran euskal itzak erabiltzeko, edo euskal-itz be iak eratzean. Eziña izango zaigu, eiki, erderakada guziak kentzea, ain barneraño sartu baitiran batzuk.

Amaika gaietan, noski, beste itz be iak so erazi bea - izango ditugu, ta askotan erderazkoak izango zaizkigu bea ak e oak; baña bea ortarako oso egokia izango litzaiguke españera ta parantzera ez diran beste erderae-tara jotzea, esandako bi oiek guretaz o en kaltega iak diralako.

Lan aundi ta ikaragafia, benetan, au ean agertzen zaiguna; baña oso osorik ontzat artu bear dugu lan ori, gure E ia bizi dedila nai baldin badugu, o en ezinbestekoa baita.

Barne-barnetik euskaldun guziaz gartsuki eskatzen diegu ororena dan ebazkizun ori afeta aundienaz begiratzeta ta aztertzea; bai ta, bereziki, lanerako muke iñor gara ez dedin. Baitezpadakoa baita bide ortan barna arizatea, gure euskal-gogoari eusteko ta gogo-bizi ortan, azkenez, yarei izan gaitezken.

URRESTARAZU'TAR ANDONI  
UMANDI (+)

## «KABUKI» ANTZERKIA

Antxiña baten, gizaldiak dirala, bertako giro atsegin eta lasaia gozatzeko asmoaz, Mexico'ko Azteka nobleak, oporretan, bear-bada, Cuernavaca'ko landetara joaten ziran.

Orduan, Cuernavaca'ko uriari Cuauhnahuac eritxoan.

Geroago "espaniar conquistadoreak" ango hazterrak arakatzen ebillela, Cuernavaca jarri eutsen izenez uriari, edo lurraldeari, "La tierra de la eterna primavera" zala esanez, ango eguraldi eguzkitu eta gozo zelakoa zan ikustatu ebenean.

Orain, azkenez, egoki litzake esatea, Barbara Hutton andrea, (Laterri Batuetakoa, bera), Cuernavaca eta inguruak ezagutu ebazanean, liluratu egin zala, eta oso maitekor egin be, aren giro eder eta baketsuaz. Bertan erosi eban lur zatiari "Sumiya" izena jarri eutson.

Antxe eregi eban bere bizitokia, oso apaindua, eta ain zuzen be, nork jakin zergaitik, japoniar antzerki batez ornidua. Badiñoen bertan emon ebazala bere bizitzaren azkenengo urteak, adiskide eta konbidatuz ia beti lagunduta edo inguraturik.

Gaur egun, leku onetan, "Complejo Hotelero" bezelako bat jaso dabe. Hotel batzukin osotuta, jatetxe, guztietako kirol-toki, lorategi eta modu erosoan egunak nasai emoteko dagozan guztiaz. Toki onexen izena: "Camino Real Sumiya". Ez daigun aitzu "KABUKI" izeneko japoniar antzerki be ementxe aurkitzen dala.

Berau, barrutik ikusteko aukerea izan genduan, ain errez izaten ez danean —guretzat dan onelako bereiztasuna— ikusi aal izatea.

Abagunea, bertan gengozala, gugaz etorren senitarteko baten bidez etorri jakun.

Ikustera joaterakoan jente naikoa alkartu gintzazan bertan, talde polita osotuz.

Ez dala au gertaera arrunta, nik uste, beraz zeuen baimenagaz apur baten mintzatuko naz oneri buruz.

Ara; antxin-antxiña Japon'en egiten zan errikoi antzerki mota bat da. Gizonezkoak egindako antzerkia. Saien datozen paperetan, gizon-emakumeenak dirala, noski, gizonak bakarrik egiten dabe lan, andreen paperak egin bear dabezan

gizonak, oneek, emakume-soinekoz jantzita egiten dabelarik.

Onela, gizonezkoak bakarrik egindako antzerkia dala esan bear. Berau, erriaren barrutik urtendako antzerkia zan, sustraituta egoalako bertan. Erriko jentea ber-bera zan antzezten ebana, antxinako jauntxo edo agintarien aundikeri edo geiegiakeriak salatzeke erabillia.

Ugaritu eta zabaldu egin ei zan Japon guztian orain arte iraunduz. Ez dala berbarik egin bear ez kanturik abestu; gorputz edo aurpegiz astiro-astiro egindako keiñuak eta zirkiñak egiten dabelarik.

"Jefe de Guardia" dalako ertzain edo gizon batek (bularrean eroian izena idatzita) erakusten eta azaltzen etorren eta zoragarria critxi jakun —batezbe gero ikusiko genduna jakinik-.

Barruko aretora sartu orduko, zapatak kanpoan utzi bear izan genduzan, sarreraren kanpoko aldean, orretarako ormaren kontra egoan arasa batean.

Antzetoki edo aretoaren barruan, zelaia, ugolo edo irriz-lastoaz "espiga de arroz", —erderaz esanda—, egina zan. Laster konturatu jeitekean orretaz, zapaltzerakoan, oinutzik ginoiazan-eta.

Laua, gozo eta leun oin-azpietan, zapaltzean.

Goiko sabaia, zentrimetro batzutako marra baltz margoztuen bidez, laukiak eginda egoan, eta bertan urre-kolorezko azalaren gainean, beste kolore guztietako loren irudiak agiri ziran, gorantz begiratzean.

Ertzaiña adi eta arduraz azaltzen zan bitartean, ni gorantz begira-begira nengoala, ezin izaten neban, an goian, sapaian, marrazki edo —dibujo-bardin bi ikusi edo aurkitu. Nik uste, lora dandanak ezbardin zirala eta kolore gozo eta :tsegindunak.

"SUMIYA" izenaren esangurea japoniar izkuntzan, eztialdi lasaitasun, barealdi, onbetea da; auxe argibide legez esanda.

Aretoaren atz-atzeko aldera jo genduan orain; antxe ormakontran, gorritz jantzitako jar-lekuak aurkitzen ziran. Aundiki edo agintarien erabilierako, agian, soruatik maila bat goratxuago egozanan, ain zuzen be.

Lur gaiñean, gela guztian txiprinduta bezela, bezaulki txiki-lako batzuk. Baleiteke, jentea, —konbidatuak—, zelaian jesarrita edo erdi-etzunda ikusten ebela antzerkia.

Baegoan, bazter baten egon be, bakardadean balego tez, edozelako gauza geiago bat bailitzan, zurez eginda, burdixuren antzeko bat, bere jarleku eta guzti. Oratzeko lau euskarri ebazan; bi aurrean eta beste bi atzeko aldean.

— Ez da au besterik, Barbara Hutton andrea, erdi-gaisorik egoala-ta, eroateko erabilten zana. Auxe da eta ez besterik, onelako ondasun guztia- ren jaubea izan zalako.

Laterri Batuetako Barbara Hutton andereak, txikitan, bere aititaren eskuakandik artu eban bizitza guztirako aldi atan ezagutzen zan diru moltzori- rik aundiena: berrogei milloi dolars. Orduan munduko personarik aberatzenarikoa zalakoan, uste. Badiñoerdi zorotuta, baita txiro edo "pobresian" il zala.

Bertatik joanda, atzekaldetik, pasillu bat igarota, sauna antzeko bat, edo bainua, edo dana dala- koa egoan ikusgai: Zurez eginda, sándalo izeneko egurrez, edo zurezkoa. Sándaloaren usain gozoa bertatik asmatzen zan eta zabaltzen, ango giroan liluragarritz eraginda edo emonda.

Jarraian, andixik, igarobide aretatik ezker- rantz egin eta beste ate batetik, kanpora urten ginan. Lekua, etxearen atzekaldea zan. "El jardín de arena" iñotzen tokiaren aurrez-aurre gengozan.

Arezkoa zan esandako "El jardín de arena" ori. Area egoan soruan lurraper ordez, itxasoan olatuak dagozan baizen apain edo orraztuta zirudien. Apainagoak, bearbada. Are edo ondarra kolore bitan egoan nastauta; ez illun, ez argi, gris-urdiñaren antzekoa.

Pseudo edo sasi olatuen muturretan (puntetan), goi-aldeetan, gris-illuna agiri zan. Beerantz egi- tean, argiagoa, urdinaren antzera.

Ezkerretik eskumara, edo alderantziz esanda bardin, 15 arri edo atx egozan arearen gainean- bertan, bananduta; lasaitasuna, bakea emoten ebe- nak. "Jardín de la meditación" ei zan. "Es- tres"aren zama askatzeko edo "liberatzeko". "Energía" edo indarra "konzentratu" ala baleite- ke, batu egiten dan tokia zala.

Loratoki edo "Jardín de la Meditación" onetan, albo bietan zugatz bana landaturik egozan. Bata bere semearen oroimenez; bestea "Arbol del pan"

ei zan bere izena. —Nik neuk, ez neutsen mirariz- ko edo beste munduko zugatz motaren antzik artzen edo bereiztasunik aurkitzen. Antxe ipinita, baiña, bai ondo, egoki emoten ebela, beste pitxi edo edergailu geiago bat zalakoan, agian.

Urtekeran, sartu gintzazan leku ber-beratik eginda, oinetakoak jaztera joan ginan; antxe atea- ren ondoan kanpoko aldean, arasan-bertan ego- zan... Pare bat izan ezik, baiña. Aurkitu genduzan azkenez zapatok, an, goi-goiko zapaldetan, nor- baitek eskutatua balegoz bezela.

Eguna amaitzera joian andixik urten gintzaze- nean.

Gugaz etorren senditar batek, sukaldaritzarako ikasketak egin ondoren, emengo jatetxean denbo- raldi baten "praktikak" edo bearbada trebetasun artzeko lanak egiñikoa zan "Camino Real Sumi- ya" onetan. Beraz, bertan "La Arboleda" eritxon jatoki onetan zeozer artzeko asmoz geratu giñan.

Bai ondo artuak izan giñala! Danak izan gendu- zan emen adiskide. Gero, azkenean, alkarri agur egiñaz amaitu genduan eguna.

Ez baiña orren arin: Geugaz batera antzerkia ikusten ziranen artean, gizonezko bat egoan, antzerkitik urtenda oiñetakoak idoro eziñik ibilli zana.

Bertoko "hall"ean, urtekeran, danok barriro, alabearrez, alkarregaz topo egitea suertatu jakun. Txantxetan eta erdi-barreka, ia sorginkeriren bat izan ete leikean -pentsatu genduan oiñetakoan galdu bearra, arenbeste gauza bakan eta nabarmen guretzat beintzat- ikusi eta entzun eta gero. Ez litzatekela gogoko izango gaubean ortotzik etxera biurtzea, ez orixe!

LARRONDO

1999.11.12

### IPUIN-SARIKETA

- |            |                  |
|------------|------------------|
| 1.º Saria: | Iñaki Goikoetxea |
| 2n. Saria: | Palmi Merino     |
| 3n. Saria: | Asier Legarreta  |
| 4n. Saria: | Jose Mari Murua  |
| 5n. Saria: | Anes Arrinda     |

Bilbao, 1999-12-16

EUSKERAZALEAK

# EUZKELDUN IPUINAK

## IDAQTITA AUNTZEN LARRUETAN ANTXIÑA, PERUN

Ipuin oneik dagozen idaztita auntz larruetan, ta agertuizean etxezar bateko galmonetan, izan lezkiena, antxiña, Lope Aguirre beeranizkoenak.

Orregaitik, ipuin oneik iratzargatu dagoen gogo aiñ aundea ezagututeko, irakurle artean.

Beti, ez bakarrik geldi-eraziten da ipuin oneitan, baita-be zerbait baño geiago ikastenda.

Ipuin oneik ez dea bakarrik onak gaztientzat, zarrentzat-be baita

## IPUIN ONEIK DAGOZ: ESKEINTZATUTA EUZKELTZALE GUZTEAIRI IZAR ARGIALDE LIMA-PERU

Auntz larruetan idazti zian ipuiñak, "ONTZA TEGTTXU" tik. Ezatenda eroziebela Cuzco'n (Peru-n), ikusketari batek.

Onek ikuzi-alaz izkuntz, a, iñok ez ebela ulertuten, ta jakin-naiz beren burua beteta ezegaz euela, egon zan billa zenek, ezagutuko eben, idazti areitan ezatenzena.

Asmagaitz izan zana-ikusketari arentzako, atzenean jakin ebenian euzkeraz euzela idaztita, guztk baketu-ta poztuzan; ezaten alaz: berak-be, nai ebela ezagututea euzkerea, dalako Europa izkuntz antxiñei-takoa.

Izanlezke oneitako ipuin baten aidetuzella POTOSI-ko zidarrari.

Batzuk uztendabe ipuin oneik idaztiziala, gutxi-gora-bera, 1.650'ko urtieitan.

Ikusnaizda, Ipuin dan oneitan, idaztiebenak – ONTZA-TEGTTXU-k PERU'n, ipiten ebela izen gustek– gizakienak ta lekukoak beti euzkeraz. Onen ondoren itaunditenda: ¿Ez aztuteko beren izkuntza?. Beste itaunketa egiten da danen orren ondoren: ¿Zer oldostukoeben "ONTZATEGITXU-K" idaztiten ebenian auntz larruetan beren Ipuinak: jrakurteko berak berriz? Edo baita-be erakatsiteko ¿zeñen? ¿zeñeiri? ¿An, Peru'n? Egia da, danen orren ondoren dagola: guk uztendogu ¿izkutuki aundi bat!.

### Ipuintxua

#### LURPEKO INPERNUA ANTXIÑA BETEZAN

TXINDURRETA-ko errira beinbe ez zan eldu onelako izpar bildugarrik. Orregaitik egun aretan, txindur gustek geratu zean geldik subertuta, gertu jakiteko alzan onduen, zer dakarren astereko IZPAR BARRI-an "ANTXIÑA BETEZALA LURPEKO INPERNUA ta ORDUTIK INPERNUA LURREAN DAGOLA".

Ori, bakarrik ekiteko Danak nai ebeñ jakitia zer geiago etorren azkenengo astereko IZPARBARRI-an. Onen ondoren, Jabeituzean IKASTETXE NAGUSIKO Irakasle TXINLUR jaunak, beren eguneko itzaldian agerkude a. Ta, geiago ondiok: "INPERNUA ZABALDU ZALA LURREAN, ta EMEN DAGOZELA ANTXIÑAKO TXERREN GUSTEAK

-arrak ta emiak- ikustezeniskoak, jantziten dabeñak prakak edo gónak, edo biluzik euenak-euren danetako arraipagaluakgas, labeakiñ, segak, sardeak, lepayetz, aizkorak, beidak, ta daneko zurikeriakoakiñ". Geiago ondiok: Txinlur Irakasle Aundi jaunak, ezan ebela: "...egunaz ta gabaz dagozela txerrenak inguru gustietan, euren bearrian: dakuen min koipetsu labanaz, ibillten egunaz ta gabeaz, zarri dagozela zartuta gorputzetan, jatekoan, edadietan, gauz gustietan, pitarretan, diruetan, danetako egiñetan, oldostuetan, eruaten daneiri nai ebeñera, baita-be ezagututen danen gogomenak, egiten danetako zirikaldiak txerrenkeri gustek...". "Txerrenen lenengo bearra da -ezan eben TXINLUR irakasle jaunak-: "...kentzeia latsatasuna, eskatasuna gasteairi; u'te geiago dakuenairi ta mandolo dagonari". Azakenengo galdari, erantsun ieben: "Ez dago urterik ez jauziteko txerrenen atzamarretan,... iruretagoamar urtegorakoak, geinetan ez dabe billatuten, bañe ez orregaitik-izan lezke izan lezkena- iñor dago guztk aske ez jauziteko sareak artean...". Ta izpar-idazleak, itaun eutzanean Txinlur Jaunari: Jaun, ¿Beorreri be zirikatu euzto batenbaten Txerrenak? Ta Txinlur jaunak erantsun eben: "Bai, bai, baten baño geiagotan; ¿ez dot ezan txerrenak dagozela danen billean-euren bearrean?- orregaitik egon beargara beti atzarri.

Orrelako ikaragarri izparrakiñ, TXINDURRETA errikoak ausein gustiz larrituta. "¿Inpernuan gauzela?" itaundutebein batsuk. Beste batsuk:

"Xerreña zartu lezkela nere gorputzean?" - itaunebeñ beste batsuk. Ta, orrelakoak ta beste itz ta ezanak entsuten zian TXINDURRETA-ko leku gustietan. Baña izpar ori ez zan izango bakarrik geratuta ipiñi ebenak, bildurtuta TXINDURRETA errikoairi. Beste abeizkizunkez katusugarriak eukiko eben txindurreairi larrituta, kezkatuteko zergaitik: AZTEREKO IZPARBARRI-an akitenzan egiten galdera onegaz: ¿ZER EGIN? Ta irakurtenzan: "Txindurren arerioak asko baño larrei dea, leku gustietan. Gu, danok ¿zelan ez gara egonko larrituta? Egunero iltendabei gure anaiari gure bearrian gauzanean. Geinetan zapalduta. Gure arerioak dea zarri, lau ankakoak, bi bernakoak, lurpekoak, txirrinkak ta abar.

"Egia ezateko: gure areiroak be, izanez ainbeste ludi guz-tean, iltendia euretan; zarri, ezan alaz: Baikotzak dakolako beren zuzenpidea besteairi kentzeko aurretik".

"Ikusten danez, geienak aztu dabe, Asisko Aita Prantziskok ezaten ebena: "¿Danok anaiak gara!". Baña, ikusten danez, geienentzat geratuten da esekita galdera au: ¿Zer egiñ?

Izen-buru orregaz aztereko IZPARBARRI-en Txinitz argital-tzalleak, idaztendago: "Ludia, ekin zanetik, gu, TXINDURREAK, gara lenengoarte-koak. Lurra eginzanetik, lenengo artean gauz gu. Ez dogu aztu bear garata lenengo artekoak. Ta lurrean izan dean kataklisak-arteaitik urten dogula garan lez! Guk, TXINDURRAK, dakogu Lurreko adesti zarrena (1). Betibetitik izan gara: Langilleak, sonakariak, leniskueak, arduradunak, ta orretan gauz jarraituteko: Gazen lez.

¿Txindurrak!"

(1) izpar orregas, sapaburoak, zigariak, kausubak la abar, geratuzian jabo zabalik!

ONTZATEGITXU

Lima. Perú.

Ipuin au dago idaztita BIZKAI-ko antziñako euzkeraan.

---

# JOSU LARTATEGIRI

---

"Mendebaldearen mendebaldea" dalako zutabea orain-tsu ekarri zeuskun Euskaldunon Egunkarira.

Or esaten zenduzan gauza askogaz bat nator betebetea. Beste batzuekaz, ostera, ez.

Nire eritxi apalean —nik ikusten eta igarten dodana, beintzat- mendebalde osoan dago aitatu zenduan gaixotasuna. Ez mendebaldearen mendebaldean bakarrik.

Ez balizko erabiltzaile xeetan bakarrik. Mendebaldearen euskerea ia oso-osoan dago izkuntza terminala izateko bidean.

Mendebaldeko iztun asko ta askok, gorago zein beera-goko maila kulturalakoak izan, euren euskerearenganako zuk aitaturako lotsa eta konplexua ez eze, enbarazua eta alperreko zamea be sentiduten dabez.

Aor dagoz, osterantzean, ETB, irakaskuntzea, erri mailako eta foru administrazioak, prozesu terminal orretan bape lagundu ez dabenak.

Aor dagoz orreetan bearrean dagozan mendebaldar asko eta askoren jarrerea, euron nortasuna markatuten dauan berbetea ostenduteraginokoa. Konplexua, erdaldunakazko zein beste euskaldunakazkoa.

Ze gitxi baloretan dan mendebaldeko euskerea bertan, baina, mendebaldean.

Txakurragaz edo umegorriakaz berba egiteko bestekoa, eta besterik ez. Mendebalde osoko gaixotasun endemikoa.

Mendebaldean izkuntza transmisinoa eten egin da, erabileran zein izkuntza kalitatean, bete-betea eten be.

Mendebaldeko euskerea salbatutea fantasia izango da, baleiteke, baina, a joan eta gero gerokoak.

Eta joan bajoaku, betiko joan be! Au esatea, Josu, neuretako be gogorra da, gogor-gogorra. Mendebaldeko euskera esatea euskera esatea dalako. Nik, ostera, ez dot orretan pasorik egingo!



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE

## ALARDEAZ OK EGINDA

Irun eta Ondarribiko alardeek neurritik kanpo jo dabe, nire uste apalean. Bagara asko ta asko alardeoi azkenengo urteotan egiten izan jaken larregizko jaramonaz ok egiten asita gagozanak.

Bertakoak ez izategaitik? Eurek lez alardea bizi ez izategaitik? Baleiteke. Zer esanik ez, dalako alarde militarra leengo egunean Bilbora ekarri ebenean.

Nire eritxian, barriro, guztiz lekuz kanpo!

Ez daijala, baina, inork pentsatu protestatzeko eskubidea edo ori egiteko erabilen erea ezegokiak izan dirala esan gura dodanik. Ez. (Compañías, preparen armas!!)

Bilboko Euskalduna jauregiaren kanpoaldean izan nintzan, arteragoko zapatuan, Udalbiltza izango zanaren autetsiei agur beroa egitekotan.

Alango baten, alardearen giroa urreratu ekigun. Urreratu, txalo beroen artean urreratu be. Nora urreratu eta euskal nazino eraikuntzea sendotu eta bideratuteko ekitaldira. Alardea an! (Compañías, carguen armas!!) Sano kafkianoa zan ikuskizuna.

Udalbiltza sortuko eben autetsiek Don Fernando El Católico-ren al ardeari txaloak joten.

Zer pentsatuko eben autetsi nafarrek (arerioak) eta Iparaldekoek (frantsesak) El Católico-ren soldaduak ikusikeran? Bearbada, askotxuk txaloak jo egin be. Ori despiste nazionala! Zertarako kendu dira, bada, Gipuzkoako armarritik kainoiak? (Compañías, apunten armas!!) An egon ziran ikurrindun eta arrano baltzdun asko Duque de Albarren ospea txalotuten.

Despiste itzela be (ezker) abertzaleen artean, gero! Independentziaren aldeko gedarrak entzuten ziran Don Fernando-ren soldadu jantzita egozan andra-gizon askoren agoetan.

Alardea euskal estatuaren antitesia izanda, sano kafkianoa egoerea, gero! Ala, ez ete dakie, ango eta orko alarde militarrok euskal estatuaren (Nafarroa) porrota ospatuteko diranik? Despiste istoriko itzela! (Compañías, fuego!!)

INIAKI MARTIARTU  
1999ko irailan

---

## BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

---



---



---

## ARANA GOIRI'REN GOMUTAZ

---



---

Ene adiskide on maiteok,

Banatu dizueten bilera onen egitarauan ikusi-edo duzute, gaur, Arana Goiri ta Sabien'en eriotzaren urteru ena ospatzen dugula ta, Insausti gure aberkide on oni entzutera ona etortzeko dei-egin dizuegula.

Ausarkeri galanta izango litzake, noski, adiskide onezaz zuei ezer esatea, ongi ezagutzen baituzte danok, eta gañera berak ere ez du o elako bea ik.

Baña geron aldetik, hilera au antolatu bea izan dugunoi, gaizaki iruditu litzaiguke bera emen baka ik uztea, lan guziaren azpian. Pizkat eta nola-baiteko laguntza egokia izango zaiolakoan, ona emen, nerau, ene batzorkideak gañera bota didaten arlo ori au era eramateko beartua.

Af-beza berak eta zerok ere, ontzat, gogo onez emen esan nai dizuedan guztia; eta au etik, lenago, biotz barretik guztiontzako sortzen zaidan aguñik anaiko ena ere.

Aztu eziña dan eguna ospatzen dugu urtero euskaldunok. Ez alai noski; baña ez ta ituna ere. Bizitzaren bidean eriotza dugu zai guztiok, eta siñismenaren bizi geranok ongi dakigu beste aldera-alde onena sartzeko ate ori dagoela baka ik; beraz jayo giñanetik bertatik, muga ortaruntz ibiltzen asten bada, zertarako naigabetu bertara eltzen danean?

Jakiña, eíaza da onelakoak esatea; baña, aitzitik, gure sendiaren bat edo bat iltzen danean, danok negafez eta gogo-miñez danok; gure biotzak ongi maite duena iñolaz ere nai ezpaitugu lurperatzea.

Era berean gure euskal-sendi aundiak nega ezkoa du ile onen 25'gaíena; bertan, bere seme onena galdu zuelako.

Urteak au era dijoazkigu; alabaña, ain gaztea abe ia utzi zuen aren gomutak gero ta biziago dirau euskaldunen biotzetan.

Zer dala-ta?, norbaitek galde lezake. Zer egin ote zuen Euskalefi'aren oroimenean onen sendo ta gogorki bizi dan arek?

Guztiok erantzun zenazaiekete argi ta garbi, bufustan, galdera auei. Sabino' k zer egin zuen? Ona emen guztiongandik sortzen zaigun erantzuna: Sorter'ia ezagutu zuen ezkerero, sorte iarentzat bizi ta sortefiagatik il!

Abe ia ezagutu zuelarik, buru-belafi ekin zuen gure irakasle yaukal arek, beruntz zijoan E ia eutsi ta josotzeko. Itzez eta lumaz, osasunez eta diruz, gogoz eta biotzez; beafezkoak ziran toki oroetara urduri erdu zan bere almen eta inda guztiakaz.

Izlari, idazle, kondairatzaile, eliztilari, olerkari, politikan...; danetara jo-egin zuen eta nunnai ageri zan bere nortasun aundi ta nabariaz, bere oldozmen zofotzaz eta bere biotz indartsuaz.

Zala izango litzaidake Sabin'i bere egipen guzien bideetatik ja aitzea. Beraz bateaz baka ik itzegingo dizuet: euskerarenaz; au be, iraizean bada ere.

Gazteoroan erdeldun izanik, euskaldun biurtu zan, bein bere burua abertzletu ezkerero.

Sakonki sartu zan euskal-eliztiaren barna, eta lan jakintsu ta jakinga i utzi zizkigun bere ondoren eldu geranoi.

Lan sakon auek baño ezagunago, noski, bere olerkiak ditugu. Nork ez du, gure artean, aren "Mendiko Nega a" biotz samurturik abestu? Nork ez, "Itxarkundia" ta "Euzko Abendaren Ereserkia"z bere burua adoretu?

Olerki guzti oietan barna argi ikusten da bere egipen guztietara goieneko gogo bizia eramaten zuela. Emen legun, an goto , goruntz zijoazkion beti bere biotz eta anima.

Bere olerki batzuetan, edeslari antzo agertzen zaigu –oroitu, aren "Mendiko nega a". Sorte iaren kondaira edesten ari dala dirudi; itzetan labu eta trinko, bai; baña legun era berean; aiton maitekof bat dala ematen du, bere bilobaentzat kontu-kontari.

Besteetan, abe iaren miñez mindurik, nora ta nola zijoan, ufundik eta argi ikusten zuela jakinerazten bide digu, iragarle aundi baten antzo.

Gogoratu dezagun bere "Itxarkundia".

Olerki onen lenengo ahapaldietan, azkatasuna zein ede zitzaien adierazten du:

Azkatasun-eguskij a

Basotik urten da,

Bere argija edonun

Arin zabaltzan da.

## ERRIGINTZA

"Askatasun-eguzkija" — Azkatasunaren eguzkia, alegia.

"Basotik urten da" — Basotik, bai, asieratik eta e iaren biotz erditik.

"Bere argia edonun" — Edonun eta edonorentzat eta noiznaiko.

"Arin zabaltzen da" — Arin, urduri guzi oi onen dan ona, azkatasuna, emateko ifikitzean.

Ba-daki Sabino'k laburki baña argi ta garbi barnean daramana esaten. Eta "azkatasuna zein edef den", onela, azaldu ondoren, len urduri bazebilen, orain areago; ta, yoranez beterik, bere anaiari, anai guziori, sutsuki esaten die:

Itxartu zaiz, euzkotafak

Aupa, euzkeldun gustijak:

¡Gora, gora, antziñeko legijak!

Itxartu!, ez lotan geratu, abe iaren eriotzaren au ean.

Guztiak: ez ni, ez au, ori edo ura; guztiok ekin bea abe ia gaizkatzeko.

Gora antziñeko legiak!, gora aspaldiko legeak, Eñiak berak zegizkitenak; gora, batez be, lege oiek egiteko zituen eskubide ta azkatasuna!

Bigafen zatian, ala-nolako susmo txa a sortu edo zitzaion abefiarenganako maitasunez kexu zegoen biotz aundi artatik:

Ixilik ba-zagoz danok,

Zer dozube entzuten?

Ara, gaur guda-santzuak

Gatuzan deituten.

"Ixilik ba-zagoz danok" — Ixilik eta eranai sorte iaren zoritxa ak aditu ta entzuteko

"Zer dozube entzuten" — Zer? ez ote dantzuzute aurka datozkigun arerioen izki] u-otsa?

"Ara gaur guda-santzuak" — Santzua; nolakoa baña? A iskuaren au ean iguria dan buruzagiarena.

"Gatuzan defuten" — Guztioi deituten; afiskua, abefiarena, guziona izanik, ezin iñor alboan geratu.

Eta, "Itxartu!", "Itxartu zaiz, euzkota ak" -Itxartu ta be iz ere — jeiki, euskotaia; Oreaga'n bezela, edo A irgo iaga'n atzo; itxartu, itxartu

danok, guztion laguntza bea a baitugu guziok!

Iruga en zatian, lengo susmo txaí ura aunditu egin zaio ta, ba-dakus, eztakit biotzez (ain aundia baitzan sortefiarenganako aren maitasuna ala buruaz (bere adimena ain zoíotz izanik); da-dakus —diñot— abefiarengana eto iko litzaken aldi beltza; ba-dirudi begien au ean zitueta E i' aren gañera efuz elduko liraken zoritxfak; atsekabe, malko ta odolikusitze ikaraga iak.

Eta onelaxe abesten du:

Arpegija gofifuta

Darakus euskijak;

Gofijagotuko dira

Bertoko mendijak.

Arpegija go ituta Ofa or, anaiok, afiskua uñan;  
Darakus euskijak; azkatasunaren eguskia, artega, estu, sumindurik,... iñoiz baño go iago !

Gofijagotuko dira Bai, Euzkadi'ko mendiak,  
Bertoko mendijak. —ona emen iragarle—, bere seme onenen odolaz gofiak biurtuko dira; safaskia ain zuzendia izango baita!!

Eta, "Itxartu" berriro, "Itxartu", "Itxartu"... ahanztiz, guztiz ifikiturik, yoranez okitua... Itxartu, euskaldun senide; euskota aberkide,... Itxartu! Sorte ia ilobira dijoakigu. Arin, anaia: Aurki baitugu, aitzitik, gudan eriotza! Itxartu, itxartu... !! !

Alda ia zan deitura, e iaren zeaf laiste edatu zan; abe iaren maitaleak nunnai sortuerazten. Eldu ziran guzientzako ordu beltzak eta Sabin' en ikasle onenak mendiz gora joan zitzaizkigun irakaslearen iragarpena, beren odola bufustan emanaz, egiztatzeko.

Gorputazaren odol-ixuritze irkaragafi ura, noiz-pait amaitu zan. Ala ere, gogoarena ugari dijoakigu gero ta areago. Ofengatik Lotan edo gauden dirudie-la, Sabino'ren deadafa, sakon eta ozenki, be iztatu bea "Itxartu, euzkotar'a, itxartu!!..."

Eta zoritxa ez, sortefiaren izkuntza aberkide askoera izan ezik, erderara jo bea anai erdeldunai ere, Sabin'en kezka ta urduritasuna nolakoak ziran jakincrazteko.

UMANDI (+)

## BAKIOKO BARRIAK

### Leenengoz Bakion Ertzaintzaren Musika Bandaren saioa

San Inaxio eguna dala eta, 30 gizonezko eta 6 andrazkok osotutako Ertzaintzaren Musika Bandak garagarrilaren 3In jaialdia eskainiko dau Bentako plazan, arratsaldeko 7:30etan.

OARRA: aro txarra egonez gero, ekitaldia Zubiaurreko pabilioian egingo litzake.

### "Gure etxea"ko zaarren alkartea eta osasuna

Maiatzaren 26an osagile bat urrerátu zan Bakiora zaaríen entzumenen zelan dagoan aztertuteko. GURE ETXEAN egin zan azterketa ori eta ez jakon inori orregaitik ezelangor dirurik eskatu. Batzuei audiometria bana egin eutsen osagileak.

Diagnostikoa egin ostean, bakotxaren esku lotu da gorrierari aurre egiteko salduten diran gailuak erostea. Au guztiau Bakioko Irugarren Adineko Taldeak eratu izan da. Talde ori orain dala emeretzí urteko San Jose egunean jaio zan.

Ordurik ona, talde orrek ainbat eta ainbat ekintza eratu izan dauz. Esaterako, udabarri eta udako egun bakarrek osterak; urte osoan, bost edo sei izaten dira.

Arrasti guztietan karta jokoan izaten dira erriko ainbat adineko GURE ETXEAN. Guztira, 250 bazkide daukaz alkarte orrek. Orrezaz ganera, osasunari buruzko berbaldiak be eratu izan dira bertan.

Eta urteroko abenduko bazkideen arteko bazkaria be egiten dabe. Ekintza guztiotan alkarteko bazkideak ez diran erriarrak be onartuten dabez. GURE ETXEAKO ateak goizeko amaiketarik gaueko bederatzíak arte, udan amarrak arte, egunero dagoz zabalik.

### Kontuz, abiadea gitxitu!

50 km-ko abiadatik gora ibiltea galazota egon arren, jakina da erriko bide nagusian ibilgailuak bear baino abia da andiangoan dabilzana.

Daborduko, arazo onek bateri baino geiagori ikararen bat edo batzuk eragin deuskuz. Autoek orain baino astiroago ibili bear dabe bide nagusian, gura eta gura ez.

Ori dala eta, udalak bidetako beaaren ganean, an-oremenka, alango lurreko zerrenda makartxuak imini dauz, autoen abiadea gitxituteko asmotan, aurki.

Onetan udalaren guraria eta borondatea ontzat emon bear dira.

Ondorioak, barriz, bestelangoak izan dira, gure eritxi apalean. Berebilak leengo bestean arin ibiltzen dira orain be,

eta zerrenden ganetik igarokeran egiten daben zarateak bateri baino geiagori ez deuto gauean begirik batuten itzi izan.

Abiada larregiaren arazoa beste era batera konpondu bearko litzake, erriarren bizi kalitatean eragin okerrik izan barik, baina.

Udalak ori olan ulertuta, neurri ori bertan beera iztea eta beste neurri batzuk aztertutea erabagi dau, esaterako: Ertzaintza sarriago errian egotea, radarrak imintea...

Era berean, urigintza arloko arduradunak atsekabea azaldu gura deuse erriarrei zerrendek eragindako alame na dala eta.

### Udatea eta osasuna: aretzan gogoan artu bearrekoak

Aretzan egoten diran ezbear eta larrionerik geienak gure ardurabakeriearen ondorio izaten dira. Egin be, sorosleek iragarritako oar eta aolkuei jaramon gitxi egiten deusegu beti. Eta gero, gerokoak!

Ikurrin gorria goratuta dagoanean, orduan eta lagunik geien ataraten dabe itsasoko uretatik. Au da, itsasora sartutea galazota dagoanean, atan be.

Orregaitik, aretzara joaten diran erriarrek sorosleen esanak betetea bearbearrezkoa da. Ikurrin gorria goian dagoala eta uger egiten doanari ezin leioe, sorosleek, uretan sartutea indarrez galazo, ikurrin gorria egon arren.

Baina, gero, sorosleek, ganorabako a uretatik atarateko, curen bizitza arriskuan imini bear izaten dabe.

Osasun Sailak, urtean-urtean, ainbat aolku emoten dauz aretzan arriskuak saiestu, edo beintzat, gitxituteko:

- Sorosleen aolku eta esanak hete.
- Ikurrin gorria dagoanean, ez sartu uretan.
- Ikurrin beilegiagaz, kontuz ibili eta zuur egon.
- Uger egin ostean dutxatu.
- Ez loitu aretzea.
- Marmokak dagoanean, kontuz ibili uretan.
- Eguzkitik azala jagon.
- Zauriak jagon.
- Uretara sartuteko neurriak artu: astiro sartu,...
- Ez croan aretzara eguzkiak ondatu leiken jakirik.
- Atxetan ibilteko oinetako egokiak erabili.
- Kontuz eguzki-sartuagaz: burukoak jantzi, ura edan.
- Toailea norberak bakarrik erabili.

### Berba lapikoa

udate= udaldi, uda sasoa.  
gogoan artu= kontuan artu.  
ezbear= istripu, zoritxar.

## ALBISTEAK

sorosle= uretan edo aretzan arriskuan dagoanari lagunduteko dagoana.

aolku= burubide, gomendio.

galazo= eragotzi, debekatu.

saiestu= baztertu, alboratu.

marmoka= azkura andia emon eta aterkinaren anterea dauan itsas piztia.

jaki= jateko, janari.

eguzkisartu= berosartu, intsolazino.

toalla= oial, xukadera.

### Pastoral bi xiberoan

Aurten be, pastoral ikaragarri polita antzeztuko dabe Xiberoan Altzai-Lakarri errietako erritarrek, Junes Casenavek idatzitako AGOTA deritxon pastorala, atan be. Emonaldiok datorren abuztuaren lean eta 8an, domekaz, Altzai-Lakarrin izango dira.

Ez da, baina, aurtongo pastoral bakarra. Jokatu be, beste pastoral bat jokatu dabe Urdinarbeko erritarrek, Etxahun-Irurik egindako IPARRAGIRRE izenekoa. Irailaren 26an eta urriaren 3an, Xiberoako Urdiñarbe errian.

### Eskolako gurasoen alkartea

Eskolako gurasoak jo ta ke ibili dira joandako bagilean. Zertan, eta errigintzan. Aor, osterantzean, eskolako seigarren mailako ikasleei, datorren urtean bertotik kanpo ikasi bear izango daben erriko umeei, egindako agur-jai gogoangarria.

Erriko ume guztientzako olgetak eta jokoak izan ziran an, baita guraso eta ikasleen arteko partiduak, antzerkitxu bat, eta abar...be.

Beioake emendik agurtuei etorkizunerako gure guraririk onena. Aor, beste aldetik be, gurasook eurok be eraturako San Joan Sua eta orren inguruko sardin erreak, umeentzako olgetak, andragizonen arteko sokatira aupadea eta guzti.

Aor be, Gipuzkoako Azpeitira egindako osterea, Burdinbidearen Euskal Museoa ikusteko, lurrun-treanean ibilteko... eguna ondo emoteko. Urte askotan!

### Udaleku edegia euskeraz Bakion

Azkenengo urteetan ikusitako arrakastearen gorakadea dala-eta, aurten be udaleku edegia errian eratutea erabagi eben Bakioko Euskera Zerbitzu eta Kultur Etxeak.

Garagarrilaren 19an asi izan da, ileko 30ean amaitu artean. Esan bear, 7 urterik 12 urtera bitarteko 24 umek, erriko zein udatiar, emon dabela izena.

Umeok aldi orretako astegunetan goizeko 10etatik arrastiko 5etara joan izan dira udalekura, gurasoen poztasunerako, joan be.

Ainbat gauza barri ikasi ez eze, olgau be gura izan daben beste egin dabe.

Umeok eurok be pozar<sup>r</sup>en, jakina.

Ea datorren urtean be antxe ikusiko dogun alkar!

## Gaztea aldizkaria

Urkitza eskolako ikasleek egin izaten dogu bertan euskeraz egiten dan aldizkaritxu ori. GAZTEA dauka izena, eskolako ikasle gaztetxuek egiten dabe-eta. Aldizkarian, erriko zein errikan kanpoko albisteak irakurri leitez: Eskolea, Bakio, Euskalerrria, Kirolak, Mundua, Kulturea... sail nagusiak dirala.

Albisteak eta aldizkariaren diseinua era en-ezean aurkeztuten dabez, gaztetxuei jagoken lez.

Irakasleen zuzendaritza eta eskua aldizkaritxua aurrera atarateko bearrezko egiten dira, maketazinoa egiterakoan, esaterako.

Ale kopuru mugatua dau, ikasle eta beroneen gurasoen artean bananduten dabela. Ikasturtean zear ataraten dabe, lau-bost bider, geienez.

### EGA ikastaroa AEKn

Autongo udarako, EGA ikastaro trinkoa eratu dau Bakioko AEKk. Ikastaro au garagarri, abuztua eta irailean zear egingo da errian, orretarako ikasle kopuru naikoa izan ezkerakoan.

Osterantzean, Mungian egingo dabe. Interesatuta dagoanak izena emoteko onako telefono zenbaki oneetara deitutea baino ez dauka:

BAKION: Turismo Bulegoa - 94.619.33.95

MUNGIAN: Berteiz, 8 - 94.674.43.13

Beste alde batetik, sukaldaritza ikastaroa eratu dabe alkarregaz AEK eta Turismo Bulegokook errian.

Beraren sasoiaren barri iragarri eben lez, ikastaroa joandako garagarrilaren 26tik 30era, arrastiko 5etatik 7etara, egin izan da Longarai jatetxean.

Ara joandakoek 5.000 pta-ko izen-emotea ordaindu bear izan dabe.

Ikastaroaren gaiak: «eguneroko otorduak zelan egin», «egun berezietakoak», «jakiak (okelea, arraina...) zelan erosi», «ardaoak noz eta zelan».

Irakasleak, Ainhoa Ormazabal, Kepa Freire, Itziar Insausti, eta Patxi Renteria bakiotarra izan dira.

### Azkenaldion euki doguzan erakusketak

Udaletzeko erakusketa aretoan urte osoan zear bein eta barriz danetariko erakusketa interesgarriak egoten dira ikusgai.

Eurok ikusten joaten diranak ostera erriko seme-alaba gitxi batzuk izaten dira. Esan leitez beti berberak dirala bertara joaten diranak.

Au tamalgarria da. Egin be aalegintxua egiten dabe danetarikoak eta eurrez ekarten eta erritarren aldetik erantzuna sano motela izan da orain artekoan. Ez da ganera ara sartuteko dirurik eskatuten sartukerea doarikoa izaten da-eta.

Esate baterako azkeneko aldion errian euki doguzan erakusketetarikoan artean urrengo oneexek izan dira aitagarrienak:

—Maiatzaren 29tik bagilaren 10era «Eguzki bidezko asmakariak».

— Bagilaren 1 Itik 30era bitartean: «Eskulan ikastaroaren ikasleen bearrak».

— Garagarrilaren 1 etik 16ra «Akuarela erakusketea: Nati Alonso eta Rosa Marina».

## Bakio berbarik berba liburua salgai

Sasoia izan da gero! Baina bai liburua salgai dago dabor-duko.

Zegan? Ba 1.500 pezetan. Liburu txukun onek Bakioko euskerearen zati bat leba andiko zati bat, agertuten dau. Iñaki GAMINDE izkuntzalaria izan da egilea.

Egileak esan daroan lez oraindikarren Bakioko euskeraren beste zati andi bat batu barik lotu da eta TXIRRI-TXOLAREN lerrootatik bakiotarrei deia egiten deutse orretan arduratu daitezana.

Leenago esan dogun lez liburua txukun-txukun lotu da Orretan Labayru Ikastegiaren eskua igarri da.

Esan bear be. Bakioko Udalaren laguntzino eta babesa erabagiorrak izan dirala proiektu au aurrera atara aal izateko.

BBKk be laguntzinoa eta babesa emon dauz.

Liburuaren aurkezpena garagarrilaren 10ean egiteko izan bazan be gaigaz zerikusirik ez dauken beste arrazoia-kaitik atzeratu bear izan dabe jakitera emon deuskuen garagarrilaren 30era arte.

Erosi eizue liburua, merezi dau eta!

Iniaki MARTIARTU

## Liburutegiaren txokoa

Monzó, Quim: Gauza guztien zergatia.

Ogeita amaika ipuinek osotutako liburu au da Quin] Monzó idazle kataluniarren idazlanik ezagunena. Ipuin bakotxean, istorio arrigarri edo bikain arilkatutako kontakizun bat dago.

Eguneroko bizitzako pertsonaia eta egokierarik arrunte-n aukeratzen dauz eta umore deformatzailea ixuriz, barregarri biurtzen dauz areek.

FILIPOVIC, Zlata: Zlataren egunkaria. Ain ezaguna dan Ana Frank-en egunkariaren modura, setiatutako Sarajevon, eguneroko bizitza eta sentimenduak isladatuz, neska baten ikuspuntutik gerraren ankerkeriaren barri izango dogu liburu orretan.

ETXALDE, Yon: Gorrotoa lege. Butroa eta Abendañoa jauntxoak alkar txikitu bearrean dagozala eta eriosuarrezko buruketan dabilzan artean, Jaun Matxin Olasoko altxatuko da basakeriaren erdian.

Liburu oneek Bakioko Kultur Etxeko liburutegian irakurga daukazuz. Erdu gurera!

## Erri ekanduak-jaietan 1

ANDRA MARI EGUNA Andra Mari egunez joaten ziran udaleko ordezkariak, alkatea eta zinegotziak, udale-txetik goiko eleizaginoko ibilbidean, oinez eta dotore jantzita, meza nagusira joan be.

Erriko txistulariak bidea zabalduz joaten zirala, bigarren lekuan udaltzain bat joaten zan lepoaren ganean erriko ikurrina eroaten, eta gero. atzetik, udaleko kide guztiak.

Eleizan mezea entzutera sartu eta aldare nagusiaren ezker aldean, aurrez aurre eta zutunduta iminten eben erriko ikurrina.

Kontsagrazinoan, aurretuan erriko ikurrina kenduta, eleizpetik txistularien Agur Jaunak eresia entzuten zan.

Kontsagrazinoaren ostean, barrian iminten eben ikurrina leengo lekuan, meza amaitutakoan batu egin arte.

Mezearen ostean dantzak egoten ziran eleiz aurrean eta ardao gozoa eta gailetak eurrez bananduten ebezan erritarren artean.

Ekandu au guda aurretik zein ostetik urte askotan egin izan da Bakion.

## Erri ekanduak-jaietan 2

SAN JON DOLOZTXU EGUNA - Guda aurretik, San Jon Doloztxu egunean, eguerdian, sokako aureskua egiten zan Bakion.

Ziriako Garai Ardantzako eta Raimundo Bilbao Aurrekoetxeko izaten ziran auresku eta atzesku, urrengorik urrengora.

Tabernalden egiten eben sokako aureskua, erriko jaien barruan.

Dantzari biok eskua alkarrerri emonda, leenengo, aureskuak egiten eban dantzan, gero atzeskuak.

Ostean, andra bat ataraten eben eta areri aureskuak egiten eutson dantzan.

Urrengoan, beste andra bat ataraten eben eta atzeskuak egiten eutson dantzan. Gero, erria, andra-gizonak bikoteka, artean sartuten zan, zapi baten bitartez sokan alkarrerri oratuta (guda ostean, barriz, zapi barik eskua alkarrerri emonda).

Aureskuak eta atzeskuak, barriz, alboko andreari txapelaren bitartez lotuta egoten ziran.

Atzeskuak eta aureskuak dantzaldi bana egin ostean, danok jota eta porrusaldea egiten ebezan.

Gregorio Agirre Garaikoak be noz edo noz sokako aureskuan egiten eban, baita Ziriako Egia Egianekoak be.

## Erri ekanduak-jaietan 3

SAN JON DOLOZ EGUNA-Jon Bateatzaileari semea ebagi eutsoela-eta, antxineko ekanduari jarraituz, jai egun ori abuztuaren 29an egiten da Urizarretako (orduaz Oruezarreta) zelaietan.

Agiri zaarretan esaten danez, 1.495. urtean sortu ei eben San Jon Doloz eguneko leenengo erromeria Urizarretako zelaietan.



## ALBISTEAK

XVII. gizaldiaren erdirantza erromeri ori sano sustartuta egoan inguruetako biztanleengan.

Ordurako be, Bermeoko udala urtero joaten zan egun orretan Gaztelugatxera, ango jaubetzea artuteko.

Bertako eleizan mezea entzun, an egozan gauzen inbentarioa (daukagunik eta zaarrena L645. urtekoa da) egin eta Urizarretako erromerira joaten ziran eguna emoten.

Geroago, 1.927. urtean San Pelaio auzoak Bakiogaz bat egin ebanetik, Bermeoko eta Bakioko udalak urtero alkartu izan dira inguru aretara, ugaritearen jaubetzea bermeotarrena dana ezagututeko.

Ostean, erri biotako udalkideek laguneren arteko bazkaria egiten dabe Urizarretan.

### Bakioko XIII. Musika Astea

Garagarrilaren 19tik 25era egin da, urtero lez, Bakioko Musika Astea.

Aurten amairugarrenez.

Barikuko ekitaldia izan ezean, beste emonaldi guztiak goiko eleizan egin dira, Andra Mariko eleizan. Barikuko ekitaldia, barriz, Zubiaurreko probalekuan egin da.

Entzule asko be asko urreratu da emonaldi guztietara, arteragoko urteetako arrakastea zeozelan sendotuz.

Zer esanik ez dago, Bizkaiko udako musika zirkuituan Bakioko Musika Asteak leenengoetariko leku bat lortu dauana, bai musikari eta eurek jo daben goreneko mailako musikearen aldetik, bai entzuleen aldetik be.

Musika Astea Bizkaiko Foru Aldundia ta Bakioko Udalaren babesaz eta Bakioko Abesbatzako kideen laguntzaz egin aal izan da.

Aurtengo egitarau orokorra urrengo auxen izan da:

Garagarrilaren 19an: Bilboko Kantu Lirikoaren Nazinoarteko Leiaketako irabazleen emonaldia.

Garagarrilaren 20an: Pablo de Naberan eta Alfonso Sebastián, biolontxelo-piano bikotea.

Garagarrilaren 21ean: «Virtuosos de Caracas» ganbara orkestra.

Garagarrilaren 22an: Sylvia Gutiérrez eta Cristina Sánchez, arpagitarra bikotea.

Garagarrilaren 23an: «Alboka» euskal folk taldea.

Garagarrilaren 24an: Bakioko eta Mungiako Abesbatzak eta Bilboko Akordeoi Orkestra Sinfonikoa.

Garagarrilaren 25ean: Joaquín Atxukarro pianojolea.

Zapatuko emonaldia izan ezik, beste emonaldi guztiak arrastiko 8retan asi dira. Zapatukoa, ostera, arrastiko 8.30etan.

Egitarau au eratu aal izateko aurtengo aurrekontua 5,4 milioi pezetakoa izan da.

Bizkaiko Foru Aldundiak, 19 enpresa pribatuk eta Bakioko Udalak emondako diru kopuruei esker eratu aal izan da Musika Astea.

### Nazinoarteko folklore jaialdia

Garagarrilaren 30ean, ilundiko 10.30etan, Udalaren eta Portugaleteko ELAIALAI dantza taldearen laguntzaz,

ITXAS-ALDEkook urteroko Nazinoarteko Folklore Jaialdia eratu izan dabe Bakion.

Orretarako, Frantziako Landetatik NOUS CIGALOUS DE MOURSEUNS, Quebecoko LES ECLUSIERS eta Txileko BALET FOLCLORICO DE CHILE BAFOCHI dantza taldeak ekarri izan dabez.

Errialde ezbardinetako dantzari zeatz koloretsuek munduko argitasunez jantzi izan dabe San Inazio aurreko gaua, ikusleen gozamerako

Aurten be, bakiotar zein udatiarrak parra-parra agertu izan dira dantzaldira eta curen txalo beroek gualdiaren arrakastea eta egindako lanari oneritxia argi be argi itzi izan deuskuez.

### Euskal selekzinoen alde Bakion

Badago Euskalerrian euskal selekzinoen alde gogotsu bearrean dabilen lagun taldea, ESAIT deritxona.

Euskal kirol selekzinoak mundu mailan onartu daiezan, da izan curen elburu garbia.

Ori, baina, ez da lortuko, leenengo. euskal erritarrek elburu orreri oneritxia emon barik.

Aurrera darabilen kanpaina ori zeren ganean dan, erririk erri dabilz jo ta ke azalduten.

Oraingoan, bertoko Udalaren babes eta laguntzaz, Bakiora urreratu jakuz, joan dan abuztuko 10etik 15era urreratu be.

Eta zer ekarri dabe gurera? Iru gauzok:

Erakusketea: Udaletxean, abuztuaren 10etik 15era.

Maai ingurua: Kultur Etxean, abuztuaren 13an.

Kontzertua: Probalekuan, abuztuaren 14an.

Ekitaldiok asteko orduak sasoi emon ebezan jakitera.

Aurrean esandakoa ez eze, urrengo oneexek be ekarri deuskuez: erakusteko diran argazkiak, kirol jantziak, dokumental eta film batzuk, liburuak, CD-ak, jantziak salgai euki dauazan maaia, eta abar... Maai inguruan, kazetariak, jokalaria, agintariak, politikoak-eta izan doguz berbalari eta curen eritxiak guregaina ekarri dabez.

Kontzertuan, barriz, Gontzal Mendibil, Niko Etxart eta Joseba Gotzon euskal abeslariak artu dabe esku, Margarita Lorenzok zuzendutako Ganbara Orkestreak lagunduta.

Kontzertua ordu bikoa izan da, gitxi gorabeera.

Ori guztiori Joseba Gotzon sustatzailearen zuzendaritza pean.

Beioz TXIRRITXOLA egiten dogunongandik bertara urreratu zarenontzako zoriona eta eskerrak!

### Bakioko Abesbatza

Garagarrilaren 24an, Mungiako Abesbatza eta Bilboko Akordeoi Orkestra Sinfonikoagaz batera, Josu Loroñoren zuzendaritzapean, Jesus Guridiren EUSKO IRUDIAK eres-lana abestu eben abesbatzakook Bakioko Musika Astean.

Arrakasta andia jadetsi eben.

San Inazio bezperan be, garagarrilaren 30ean, eres-lan berbera Ondarroan abestu eben, egundoko txaloak jaso ebezala.

## Itxas-alderen albisteak

Azkenengo ileetan, ainbat ekitalditan artu izan dabe esku ITXAS-ALDEkook: ezkontza askotan, Bizkaiko eta Euskalerriko Dantzari Egunetan, Busturialdeko Dantzari Txikien Jaian eta Donibane Lohizuneko Udabarriko Jaian.

Garagarrilaren 30ean, Udalaren eta Portugaleteko ELAI-ALAI dantza taldearen laguntzaz, ITXAS-ALDEkook urteroko Nazinoarteko Folklore Jaialdia eratu izan dabe Bakion, orretarako Frantzia, Quebec eta Txiletik dantza talde bana ekarri dabela. Bakiotarrak, barrian, parra-parra agertu izan dira dantzaldira eta euren txalo bereok gaualdiaren arrakastea argi be argi itzi izan deuskue.

Beste alde batetik, Andra Mari Egunean, urtero lez, meza nagusiaren osteko eta ilundiko dantza emonaldiak izango dabez urte osoko ekintzarik nagusien.

Bertan, soinu eta irudi barriak eskaintzeko asmotan dabilz eta orretarako, danon aaleginak biderkatu egingo dira, emonaldiak erritar<sup>en</sup> gogoko izan daitezcan.

Orren ostean, oporrak etorriko jakez, unjan entsaietan barman asi arteari, beintzat.

## Kaleko II. pintura leiaketaren irabazleak

Bigarren urtez, bagilaren 19an egin zan Kanpoko Pintura Leiaketea gure errian. Irabazlea Jon Idigoras Mugerza (Ermua) izan zan eta 250.000 pta-ko saria eroan eban berarenera.

Basigo baserriari egindako akuareleak irabazi eragin euton leenengo saria. Bigarren lekuan, ban<sup>iz</sup>, Jose Ramon Guerra (Bilbo) lotu zan.

Onek olio egindako margokiak Basigoko uriauzoa erakusten dau, Andra Mariko eleizea erdi-erdian dagoala.

Onentzako saria 150.000 pta-koa izan da. Eratzailleen esanetan, aro txarrak ez eban bape lagundu eta, ori dala-eta, margolari gitxi aurkeztu el zan leiaketara.

Leiaketea Udala, Kultur Etxea zein Turismo Bulegoaren babesaz eta Bilbao Bizkaia Kutxaren diru laguntzaz eratu izan da.

Guztira, kalitate andiko 15 lan aurkeztu ziran eta erriko ainbat txoko eta leku ezagun erakusten dabe.

Aurkeztutako margokien kalitatea ikusita, udalak aurreikusitako egin dau 2.000. urteko udal egutegian 12 lanik onenak argitaratuteko aukerea.

## Bakio REEF PRO AM'99, surf profesionaleko Europako zirkuituko proba

Bakio Surf Taldeak leenengoz aurkeztu dau gure errian Europako zirkuituko surf profesionaleko proba bat. Orre-lan, garagarrilaren 23, 24 eta 25ean gure areatza ikuskizun

bikaina ikusteko lekua izango da. Izan be, Europako surfaririk onenak ikusteko aukera ezin ohea eukiko dogu. Bakio-ko Udalaren laguntza jaso dauan Bakio Surf Taldeak bakio-tar guzti-guztiak gonbidatu gura dauz areatzen gauzatuko dan ekitaldi onetara.

Ekitaldi onen garrantzia Sopela, Donostia eta, azkenik, Bakion egingo dan «Iruko Txapela» izeneko probaren barruan ikusi bearra dago. Izan be, iru leiaketako txapeldu-na Bakion egingo dan azken proban ezagutu aal izango dogu.

Azkenik, garagarrilaren 24ko arratsaldeko 8:00etan, zapatuz, Miss Reef 99 izeneko bikinien txapelketa egingo da; bertan modelo gazteak euren txokoa topatzen aalegin-duko dira modaren mundu leiaorrean.

Orre-lan, zapatuko ekitaldia amaitu ostean, zuen begira egongo gara Gabbianon egingo dan surf jaian, bertan Akatz Reegae Band taldearen emonaldia izango da eta

Uda onetako beste surf txapelketa batzuk:

Garagarrilaren 17 eta 18an: Lurralde mailako I. Proba.

Abuztuaren 1 ean: 16 urtetik beerakoentzako Billabong Surf Txapelketa.

Abuztuaren 14 eta 15ean: Lurralde mailako II. Proba.

Irairlaren 11 eta 12an: Lurralde mailako Talde Txapelketa.

Surf eta Body ikastaroak, Bakio Surf Taldeak antolatuak:

Ilabeteak: garagarrilean eta abuztuan.

Orduak: asteleenetik barikura goizeko 9:00etatik 11:00etara.

Prezioa: 15.000 pta. ilabete bakotzeko.

Asegurua: 3.000 pta. Urtebeteko baliozkotasuna.

Materiala barruan: taula eta boogie.

Argibideak: Turismo Bulegoan edo paratu artuemonetan Gontzal Mendiola, Iker Erauzkin, Sergio González edota Gabi Urrutia irakasleakaz.

## Non itzi dabe euskerea? Zertan dagoz, ba?

Urtero-urtero ikusten doguz onelakoak. Udea etorri ta blaust!, perretxikoak lez agertuten jakuz erderazko kartel arrotzak.

Ez ete dakie Bakio erri euskalduna danik, ala? Ba, sartukeran argi ta garbi dakar: BAKION ERE EUSKERAZ!.

Ba, olan eta guzti be, bapez.

Itsukeri-gorreri ori kenduteko gatxa be gatxa egiten jake, aurki.

Edo gugainako errespeturik eza da? Bakiora etorri eta euren kartel erdaldunez gure erria artu, olangorik! Inglesez urrengo errefrau au esaten da: «do as people do». Edo euskeraz: zoazan lekura zoazala, bertakoakaz bat egin!

INIAKI MARTIARTU

---

## ZER DERITXOZU?

---

### Zer deritxozu Miss REEF leiaiketeari?

Dakizunez. irakurle maitea, il onetako amaieran. Miss REEF txapelketea izango da Bakioko aretzean. Onetan, REEF surf marka komertzialak babestuko dauan neskarik politena aukeratuko dabe. Oidalakoa dan ezker. giroa "berotu" egin da eta jendearen eritxia emen dozue. Eta nortzuren? Bada, Bakioko EGA ikastaroko ikasleena, esate baterako.

1. Kepa GARAIZAR. Nire ustez, leiaketa ori ondo dago. Bakiori ate barriak edegi aal izango deutsoz, turismoari begira. Bakioko denden irabaziak aundituko dira Ieikieta moeta oneek dirala-eta.

2. Miren GOIKOETXEA. Ondo deritxot, baina gurago neuke neskak izan hean-ean, leiaketan esku artuten dabenak mutilak izango balitza. Beti dira neskak esku artuten dabenak.

3. Ander OLABARRI. Ondo dago Bakiora jende asko etorriko dalako eta ganera, neska politik egongo diralako.

4. Iban URIARTE. Gizonezkoentzako ondo dago, baina neskak gurago leuke mutilak ikusi. Normala da-eta.

5. Isabel BOIRA. Garrantzi andiegia emoten jake, gaur egun. oil-dango gauzei. Ez dira ai nbesterainokoak.

6. Naiara ARIZPE. Sasoi onetan zerik tipikoena da ori. Olango gaiek beti emoten dabe zer esana.

Anartz-Ziortza-Haitz-Larraitz

### Bakioko baserriak —Ibarra

Argazkian ikusten dogun baserri zaar onek badauka beraren istoria txikia eta oso interesgarria, ganera. Bearbada, batzuk jakingo dozuena, baten batek esanda edo or nonon entzunda.

IBARRA, orduan "Ybarra" idatzita, oso dorre garrantzitsua eta entzutetsua izan zan. Espainiako Errege-Erregina Katolikoaren sasoi botata egin eben, areen agindu bat zala eta. Orduan be. errekearen albo baten egoan, Santa Katalina ermitearen aurrean.

Dorrearen ondakinak an egon ziran, 200 urte pasatu ta gero. Eta orain be, inguru a " Torrea " lez ezagututen dogu.

Dorrearen jaubetzapean egon ziran IBARRA GOIKOA ta IBARRA BEKOA baserriak eta orduan errotea zan TORREZAR.

Ibarra abizena oso entzuna da gure artean. Leenengo eleiz erregistroetara joanda, an topetan doguz "Ibarra"-tarrei buruzko leen aitamenak.

1580. urtean, baegoan-Bakion Martin de Ybarra izeneko bat, Maria Perez (Petra) Albonigakoagaz ezkondua zana. Seme bi izan ebezan, gitxienez: Martin eta Migel.

Beste "Ibarra"-tar bat. Martin Abbad de Ybarra izan zan, Kareagako Martinagaz ezkondua zana. Euron alabea Marina izeneko zana. Eta olan beste "Ibarra"-tar batzuk be agertuko ziran.

IBARRA baserria. izenak berak esaten deuskun lez, orduko errekearen ibarran edo. beste era batera, errekaldean egoan kokatuta.

Eta oraintsu arte be an egon da ia 400 urteko baserria, orain urte pare bat bota egin eben arte.

Olan, besteko barik, Bakioko istoria zati andia eta erri arkitekturearen ereduagarria zana betiko joan jaku.

Baina izen toponimikoek badiraue aurrera. Or doguz: IBARRA-BARRI etxea, TORREA etxea, TORREZAR baserria... danak "dorre" eta "ibarra" izenen inguruan dagozanak. Izan be, IBARRA dorre izan zan eta.

Anartz ORMAZA

### Flores de otro mundo (filma)

Xumea bezain aberasgarria dan istoria onetan pertsonaiak benetakoak zein urbilak dira. Film errealista onetan pertsonaiak ardatz biurtzen dira eta argudioaren bidez. gizon bila doazen emakumez gainezkaturiko autobus baten agertzen gara bidaiatzen.

Gaztela barruan, edonondik urrun dagoan errixka bateraino. Film onek etorkizunari uko egin eta itxi-itxita bizi dan nekazaritza gunearen ikuspegia eskaintzen deusku. Bertan gizona nagusia da eta indarrak baliatzen da, beraren erispidea eta bizi-modu eroso ezarteko, inguruko errealtatea zaartu eta jausi egiten jakon bitartean. Ain da itxia gizarte orren egitura. ze errana/amaginarreha, baltzaluria, ama bertan-behera-itzia/tradizinozko senaremazte dikotomiak bein eta bar-iz sendo agertzen dira.

Itxaso URAZURRUTIA

### Inshala! (Diska bat)

Edota gura bada, itxaropena. Berau da-eta arabiar berba orren esangurea. Alaitz Telletxea eta Maider Zabalegi, Alaitz eta Maider bikote oiartzuarraren lan barria doinu freskoz beterik dator. leenengo diska ederrari segidea emonez. Erritmo barriak sartuz, berba arinak naiz sakonak maitasunez tartekatuz, gustagarri egingo jatzuela egingo neuke posturea.

JONJO AGIRRE

### Agur, 6. mailakoei agur!

Gure erriko eskolako nagusiei Bakioko eskolan egoteko epea amaitu jake, orregaitik Mungia institutorea joan bearra dauke.

Ori dala eta, urtero lez, agur-jai bat ospatu izan dabe eskolan, bagilaren 19an, ain zuzen. Jai dibertigarri orretan jolas ugari prestatu jeezan. Goizeko amarretan, gurasoen aurka futbol partidu interesgarria jokatu jeen.

Emoitza 3-3 izan zan. Seigarren mailakoei asko kostatu ekien enpatea lortzea, baina, azkenean, pozik geratu ziran. Orren ostean, batzuk izerditan egon arren, zelaiarre partidu ikaragarri baten artu jeen parte. Joku orretan ikasleek irabazi jeen, abantailaz, jakina! Gero, amaiketana, joku ugari egon ziran ume guztientzat, batez be txikientzat: globo pusketaka, goilarean aurrautza eroateka, eta abar. Amabiak aldera, seigarren mailako ikasleek eurek ipuintxu bat antzestu jeen: "Berba egiten ez ekian printzesa" izeneko. Danon ustean, pena merezi izan jen.

Antzerkiaren ostean, sari banaketa egon zan, argazki bana, ain zuzen. Seigarrenekoak egonezinik ibili ziran, ainbeste argazki atara eta gero, aukeratutakoa zein izango zanaren begira.

Baina alai amaitu jeen, oparitutakoa eskolako leku eder baten ataratakoa zan eta. Azkenik, jendeak sabela tripa zorritz beteta eukanez, "lunch" txiki bategaz amaitu zan jaia. Zer jango ete zan etxeetan?

Jendea asko dibertitu zan egun orretan, pena bakarra: Altor, Zuriñe, Xabier, Indi, Eztizen, Idoia eta Yera badoazala.

BAKIOKO ESKOLAKO GURASOAK

# BIDE-BILLA

(E.B.B.ri)

## Bide bila (I)

Ezin uste dezakegu euzko-abertzaleen elburua aldatu danik.

Euzkadi gure abe i bakafa dala bayezten dugu, ta bera bizi dedin, besteai bezela, azkatasuna opa diogu biotzetik, geron buruabertzaletzat daukagun guztiok. Eta urteetan sarturik gaudenok, ongi ala gaizki, baña uste onez beti, gure alegiñak egin ditugu biotz-biotzez, ortarako.

Euzko-Alderdi-Jeltzale'aren muga ien ba utirako itzegin nai dugu baka ik; orain arte bederen bera izan baita abe iaren alde lan aundienak egin dituen; beste aldetik, euskaldunen artean, orain ere lagun geyenak aren barnean alkartzen dirala uste dezakegulako.

Abe iarenganako kexutasunez beterik ta bere azkatasunari buruz, bidezkoa deritzaigu u engo bi galdera auek egitea: Ba ote goaz bea ezkoa zaigun bedean barna? Onuragafiena al da orain daramagun bidea? Ene ustez, guziok geron baitan, noizean bein egin bea ditugun galdera egokiak. Ikus dezagun, beraz, nola gauden.

España'ko gudak, bere sare edentsu ta biu ietan afapatu ginduen, zoritxa ez. Ordurarte Areudi barezi bat lortzeko egin ziran alegiñak etziran alpe ik izan, eta guda asi zanean, gure gudarien eskef eta Madrid'en gure gudarien bea a zeukatelako, bein batez eta aurkeztua izan zan bezala, Erkala' ren Batzaf Nagusi' an osorik onartu ziguten, 1936' ga eneko ufi-lan.

Ordudanik ona, asitako bideak guda aren goraberak eta ondokoak ere, nai ta nai ez, jafai-erazi dizkigu, España'ko ezkertafen arauz edo auekin batera beñepein. Eta ba-dirudi askotan, gurean ere. Franko bere tokitik kentzea baño beste xederik ez dagoela, España'ko beste alderdi ezkertaf batean bezela.

Ona emen uste oni inda a eman dizaioken aurten izenpeturiko itunbena. Otsai-lean izenpetu zan itunben ori, ta "Alderdi" gure aldizkaria danaren epai-learen zenbakian aren be ia eman zan.

Itunben o en bidez, bera izenpetu zuten guztiak, gure alderdiak ere, ontzat artu zuten España'n zer egin bea zana. Franko kendu ondoren. Ona emen: Bein-beñeko egokera bat antolatu; bertan ez Erkalik, ez Efegetzarik, ez eta bein-betiko edozein jaurlaritzá-motarik etzan izango; eta egokera au, españa'fak azkatasunez, beren bein-betiko jaurlaritzá erabaki arte irauntzeko. Noski, alboan, erakunde bakoitzak bere asmo ta xede bereziak eusten

zituela esaten zan. O a, esan gabe, nola itunben ori izenpetu ori izenpetu zuten guztiak ontzat artu zuten. Erkala aldian jasotako erakunde guztiak zearo ayenaturik bezela eukitzea: España' ren Araudi nagusia, eta Kataluña ta Euzkadi' renak ere. Beraz guztiok befiro asteko edo gaudede.

Auxe aipaturik, ez da nire asmoa, España' ren baranoan ibi-li bea baldin bada, azkenez artutako bide ori, ona ala txafa danik ikustea; baliteke azken urte auetan, España' n eta Ludi guzian izandako goraberak begiratu ezkerro, beste biderik ez izatea, befiro esan nai dut, España' ren zedafietan barna baka ik jokatu bea baldik hada.

Eta bide batez, ona beste oaf bat gañeratzeko: Ez da esandako mugona, España' ko ezkertá' rak, aipatutako asmo ori agererazi duten lendabizikoa; lendik ere orobat egin nai izan zuten, baña orduan egin nai izan zutena alpe' rik galdu zan betiko ta zearo, nere aldetik zergatik ote zan jakin gabe. Ba-liteke, len eta orain, Euzko-Alderdi-Jeltzalea azkena izatea erabaki oietan sartzeko.

Baña ots. Asmo, erabaki ta aipatutako itunbena, izan, artu ta izenpetuta izana en, jaso ta bizirik ditugu bai Erkala' ren Jaurlaritzá bai ta Kataluña ta Euzkadi' renak ere. Zer egingo dute erakunde auek otsai-laren itunbena au era baldin badoa?

Neuk dakidanez, esandakoan edo datza gure gaurko egokera.

Naikoa ta egokia al da Euzko-Alderdi-Jeltzale' arentzat egokera au bakaf-bakafik? Geuk, besteekin artutako eginbeafak, nai ta nai ez, bete bea al ditugu besteak nai duten erara? Eginbeaf oiek al dira geuk soikki dauzka-gunak? Alde batetik gure jeltzaletasunagatik, eta gero gure gudarien eta jausitako guztien odolagaitik?

Geyago: Gurekin itunben asko izenpetu dituzten España'ko ezkertá ak bete egin al dituzte beti, guranako artu zituzten eginbideak? Gogoratzeko: Nolako uste txafez artu zuten ezkertá ak igaz Paris'en egindako Euskal-Batzaf Orokafa. Ez ote dakigu guztiok ongi, guda aufeko egokeraren antzeko beste bat sortu ezkerro, len bezela, gure aurka jo ta ke egingo luketela? Gerokoa gertatuko danez, ezin iñork eskierki ezer bayeztu; baña naiz etxean naiz kanpoan gureganako ezkertafen jokera nola izan dan gogoratu ezkerro, bidezkoa deritzaite uste ortan egotea.

Guzti au esatea bea a dalakoan nago, idazki onen nire

## ARAZOAK

xede nagusia azaldu baño lenago. Goazen orain, beraz, au era ta arira.

Itz gutxitan, auxe esan dezakegu esandako guztia borobilduz: Gure alderdiaren gaurko xede guztiak, nere aburuz, España'ren baranoan edatzeko ditugu, eta España'n sortu ditekene beste edozein egokeraren ondoko.

Eta o ela baldin bada, auxe apika egoki galdetzeko: Ez ote da España'tik at artu ditekene beste bide egokiren bat? Ni beietzean nago, ta ahal dezakedan ongien, beste bide bat nola ikusten dudana azaldu nai dut. Gero, Alderdi'ren agintariak ikusiko dute bidezko ote dan eta egoki ta egingafi ote zaigun.

Alegia, España'tik at ezer bi-latu bea baldin bada, Europa ko Endefi'en Alkartasun'ean izan bea ; eta o a nijoia.

Europa'ren bizirako, ta U.S.A. ta U.R.S.S.'ak alka en aurkako daramaten dena bildurgafia dala-ta, gero ta bea'rago agertzen da Europa n Alkartasun ura eratzea. Ontan, nere ustez, europaf guztiok aburukideak gera.

Zoritxa'rez, gaur Europa ori eratzen ari diranak, orain arte, gaiezko bedeatatik dijoaz soi-lik, gogozkoari iñoiz jaramonik egin gabe. Alakotz, bide ortatik au era baldin badijoaz, Europa ko Alkartasuna gaurko late ien artean egingo da; eta txikiak geranok, len eta orain bezela geratasunari buruz, nolako etekiñik eskeiñiko digu Alkartasun o ek? Oso txikia beti, baten bat ere izan ezkeru.

Ofangatik, eta oindiño ordu onean gaudelakoan, ezer egin ote dezakegun ikusi bea , nere iritziz; ikusi, oldoz-ta ta ongi auznartu ere.

Guk geuk, soilik, ez dugu inda ik gure eskubideak mail artan eusteko; eta inda a aurkitu bea , Luidi ontan, legea, inda ak baka ik dagielako.

Nun aurkitu o en beata zaigun inda ori? Europa'n zeaf gu bezelako dauden beste menpekoekin alkartzean. Guztion artean, eten gabeko lana egiten; Europa ko aundi batean Batzaf egoki ta oroko a atondu liteke aste-ko. Batzaf ortan, guztion beafari dagozkien erabakiak artu ta efuz aurkeztu: Naiz Europa eratzen ari diranei, naiz orain arte lorturik izan diran "Pool" guziei, naiz Europa'n gaur dauden latefi guztien jaurlaritzai, naiz ONU ta bere baranoko beste erakunde guztiai ere.

Nolako inda a bildu ahal izateko Batza ortan? Ots, zenbat mi loe gizonetan, ordezkarien bidez, an agertze-ko? Ezin neronek ainde eskie ik eman; baña nere ustez, sartaldeko Europa'n gu bezela daudenen artean 15 edo 20 mi loe bai, gutxienez, alkartzeko gai diranak.

Baña, indar aundiago eukitzeko (bea a baita) ta beste zioengatik, Europa;ko sortaldekoak ere batzarkide izan litezke, beren beafetarako oso egoki izango litzaiekela-ko. Eta anen bayetza lortu ezkeru, ez len esandako 20 mil oe soilik, bai ta eun mifoe edo geyago agertu litezke

ordezkarien bidez. Gañera, oso bea ezkoa izango litzake e i oiek Alkartasun artan sartzea, batez ere Komunismo'aren alde ez genbiltzala adierazteko, eta onen pean dauden e i guzti oiek ere gure alde ja ierazteko; onela, oraindik, Amerika'n, Ingalterra'n eta URSS'en aurkako ari diren e i guztietan ere, guganako begikotasuna soferazi ahal izateko; curen aldeko inda aundi bat ere an ikusi bailezaketene.

Geyegizko ametsak, apika, auek? Eztakit, baña abe iaren azkatasuna lortzeko, edozein bide onaz oldoz-tekko gogoz egon bea .

Dana dala, ezin ukatu, alkartze ori lortu ezkeru, inda aundia bildu litekela: eta gañera, Bamako'n agertu ziran Apirka'ko beste e iari dei-egin ezketiño, askoz sundiago oraindik. Euroapa ez ezik, «Europa Afrika'''z mintzatzen baita.

Asmo oni buruz eta guri dagokigunez, ez dut uste, orain españafenganako dauzkagun eginbeafak, ortan oztoporik izan lezaketela. Batzaf ortan, noski, diktadura guztiak ezetsiak izango lirake, lenengoz, naiz eskubi naiz ezker'ekoak. Beraz Franko'ren aurka u ats sendoeneta-koa izateko, eta onengatik gure ezkertak ak ontzat artze-ko, eroturik ezpadaude.

Eta beste aldetik, ezkertak ak guganako adeirik gabe, ahal izan dutenean beren ufatsak emateko gai izan baldin badira (gogoratzeko Prieto ta Gil Robles artean izandako aspaldiko esamesak), orobat guretzako ere, idariko-tzen dugun u ats ori oiek txartzat artu ezkeru.

Azkenez, gu, Europa'ko e i txikien alkartasunean sartzen bagera, inda a aundiago ere gugan, naiz España ko ezkeñak naiz eskubikoen au ean jokatzeko. Eta zer esan-ik ez, ortan katalandafak ere gurekin sartuko balira.

Uste onez eta bea dan izalez eskeintzen dizkiot asmo auek EBB ri; eta nere itzetan gaizki esandako ezer ikusi ezkeru, au etik barkatzeko eskatzen diot, berarenganako adeiez beterik.

Paris'en 1957'eko, azilaren 25'n.

=>=<    =>=<    =>=<



# EUSKALDUN BARRIENTZAT




Mutil oneetan bi bardin-bardiñak dira.



Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.  
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



## BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konprometzat  
artuten dogu, geure erri onen  
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik  
lagunduten deutsegu gogo osoz,  
geure nortasun berezia indartuten  
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten  
deutsagu, kultur adierazpenen  
artean, gure ezaugarririk gorena  
dan euskerearen garapenari.

---

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK

---

BBK

Bilbao Bizkaia Kutxa